



-TZA atzizkiaren lekuko ugari ditugu literatura-tradizioan. Honako esanahi hauek adieraz ditzake:

1. Kantitate handia, ugaritasuna, multzo handia:

basatza
belartza
dirutza
garitza
harritza

hodeitza
jendetza
sasitza
...

Toponimian ere ageri zaigu maiz -TZA atzizkia, ugaritasuna adierazten duela: **Areatza, Egoarbitza, Gesaltza, Gorostitza, Lizartza, Otatza...**



2. Egintzak, kualitate abstraktuak:

aitortza

bizitza

ekintza

esklabotza

ezagutza

heriotza

iraultza

jakintza

laguntza

...



3. Lanbidea, jarduera:

abokatutza

agintaritza

argazkilaritza

artekaritza

arrantza

errementaritza ...

kazetaritza

morrontza

nekazaritza

soldadutza

zurgintza



4. Kargua, egoitza zein egoitzako lantaldea adieraz ditzakete
-TZA atzizkiarekin osatutako hitzok:

dekanotza
errektoretza
idazkaritza

lehendakaritza
zuzendaritza
...



Batzuetan, ordea, forma desegokiak erabiltzen dira erabilera ugariagoko formen orde¹:

antolabidetza* e. antolaketa
 arduralaritzea* e. administrazio
 elebitza* e. elebitasun
 estoldaritzea* e. estolderia

ganaderitzea* e. abeltzaintza
 ministeritzea* e. ministerio
 norantza* e. noranzko
 solidaritzea* e. solidaritate

Laburdurak

¹ Forma hobetsiak eta forma txarretsiak Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuan*

* Forma okerra edo euskara batuan saihestekoa
 e. Erabil (erabili beharreko forma ondokoa da)



Delegazio formak ere
badauka sarrera
Hiztegi Batuan:
delegazio iz. Zuz.
(*ordezkaritza*
hobesten da)

delegaritza* e. **ordezkaritza**



Magisteritza formak
badauka sarrera
Hiztegi Batuan.
Berariaz gaitzesten
dira, hala ere, zenbait
erabilera.

magisteritza

- 1 (*magisteritza ikasi zuen**
e. irakasle ikasketak egin zituen)
- 2 (*Magisteritza-eskola**
e. Irakasle-eskola)



Bestetan, aldiz, ez dira ondo aplikatzen erabide-
arauak, eta forma desegokiak moldatzen dira:

doktore + TZA

doktoretza

doktoradutza*

sailburuorde + TZA

sailburuordetza

sailordetza*

igeltsero + TZA

igeltserotza

igeltsaritzea*

tutore + TZA

tutoretza

tutoritzea*



Nolanahi ere den, emankorra da oso -TZA atzizkia hitz berrien erabidean:

¹bitartekaritza
burujabetza
epailetza
idazletza
ikuskaritza
ikuskatzailetza
irakasletza
irakurtzailetza
kontu-hartzailetza
zaintzailetza
 ...

¹Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuan* ikus zerrendako hitzok

²agerkidetza *Hizk.*
auditoretza *Inform.*
babesletza *Merk.*
ekintzailetza *Ekon.*
gerrakidetza *Pol.*
prokuradoretza *Zuz.*
 ...

²*Euskalterm Terminologia Banku Publikoan* ikus zerrendako hitzok



Zenbait erreferentzia

Sarasola, Ibon (1997). "Magisteritza". "Ministeritza". "Sailordetza". In *Euskara batuaren ajeak*, Irun, Alberdania, 132, 139, 159.

Villasante, Luis (1981). "Sufijo -tza (-tze, -tzia)". In *Palabras vascas compuestas y derivadas*, Oñati, Ed. Franciscana Aranzazu, 135-136.

Zabala, Igone. *31 eskutik* [Blog Internet]. EIZIE. 2012 Aza. [kontsulta-data: 2015-05-05]. URL helbidea: <http://31eskutik.com/2012/10/28/hibridoak/#comments> (Gotzon Egiaren blog-sarrerari buruzko iruzkina: *Hibridoak*).